

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

391 zb.
www.getxo.eus

>> 2024ko Utzaila

Nabarmen^{tzekoak}

> Abian EuskarAbentura

- > Getxok udalerriko gazteei buruzko diagnostikoa egingo du
- > 2024ko uda gaztea: trenez eta autobusez egindako bidaiak, %90erainoko beherapenekin

2024ko uda gaztea: bidaiak %90erainoko beherapenekin

Garraio eta Mugikortasun Iraunkorreko Ministerioak tren eta autobus txartelen salmenta eta erabilera baldintzak argitaratu ditu, %90erainoko beherapenekin, 18 eta 30 urte bitarteko gazteek uda honetan Espainiatik eta Europatik bidaiatu dezaten. Horrela, gazteak Ministerioaren webgunean erregistra daitezke, operadore edo ohiko salmenta-kanaletan deskontuak dituzten txartelak erosteko erabili beharko dituzten kodeak lortzeko.

Deskontuak

Hobariak 2024ko uztailearen 1etik irailaren 30era bidaiatzeko data duten txartel sinpleen edo joan-etorrikoen prezioari aplikatuko zaizkio. Horrela, deskontuak honela geratzen dira:



*%90eko deskontua distantzia ertain konbentzionaleko zerbitzuetan eta zabalera metrikoko sarean.

*%50eko deskontua Avant titulu sinpleetan.

*%50eko deskontua, gehienez 30 euro txartel bakoitzeko, tren-operadore guztien distantzia luzeko edo abiadura handiko merkataritza-zerbitzuetarako.

*%90eko deskontua Estatua-ren eskumeneko autobus erregularrako zerbitzuetarako.

*Interrail Global Malguaren %50eko deskontua, 10 eguneko, 2 hilabetetan, Renferen bidez merkaturatzen denean.

Beharpena Interrailen tarifa ofizialen gainean aplikatzen da, adinaren arabera prezio-ezaugarriekin, etab.

Txartel hobaridunak behar ez bezala erabiltzeak zigorrak ekar ditzake, eta erregistro-zenbakia eta, beraz, neurriaren onuradun izaten jarraitzeko gaitasuna bertan behera utz ditzake.

Inprimakirako zuzeneko sarbidea: <https://veranojoven.transportes.gob.es>

Sei gazte getxotar parte hartzen ari dira espedizioan

Abian EuskarAbentura

Sei gazte getxotar parte hartzen ari dira aurten EuskarAbenturan, Euskal Herria oinez zeharkatzen duen ekimenean, euskararen erabilera sustatzeko eta normalizatzeko, gazte euskaldunen artean sareak sortzeko, Euskal Herriko ondasun kultural eta naturala gazteen artean ezagutzera emateko, eta parekidetasuna, ekologismoa, autonomia eta osasuna bezalako baloreak transmititzeko.



Espedizioaren amaiera Getxon

Horretarako, euskara batua eta euskalkiak, emakumeak eta kirola, eta utopia gaiak landuko dituzte, besteak beste.

Aurtengo partaideak 16 eta 17 urte arteko 127 gazte dira: Bizkaiko 43, Gipuzkoako 28, Nafarroako 24, Arabako 13, Lapurdiko 10, Behe-Nafarroako 6, Zuberoako 2 eta diasporako bat (Perukoa), 30 lagun lan

taldeak (begiraleak, osasun zerbitzua, komunikazioa...) lagunduta.

Uztailearen lehen, aurten lehen aldiz Atharratetik atera den espedizioa 400 kilometro zeharkatu ondoren, uztailearen 31n Getxon amaituko da. Bizkaia Zubia plazan ongiatorria

eman ondoren, Muxikebarri-ara abiatuko dira, amaierako ekitaldia egiteko. Aurreko edizioetan bezala, EuskarAbenturak entitate ugari-aren laguntza du, tartean Getxoko Udalarena, baliabiderekina eta 4.200 euroko diru laguntzarekin, Euskal Herriko gazteei ezagutzera emateagatik.

Haien beharrak identifikatzeko eta hobekuntza-proposamenak sortzeko

Getxok udalerriko gazteei buruzko diagnostikoa egingo du

Udaleko Gazteria Zerbitzuak diagnostikoa egiteko prozesua hasi du herriko 12 eta 30 urte bitarteko gazteei buruz. Prozesu honen helburua da egungo zerbitzuak ebaluatzea, beharrak identifikatzea, errealitatea hobeto ezagutzeko eta hobetzeko proposamen berriak sortzea.

Ondoren, bildutako informazio guztia baliatuta, Getxoko lehen Gazteria Plana egingo da, identifikatutako beharrei erantzuteko. Horregatik, parte hartzerantz animatzen ditugu gazteak eta gure udalerriko gazteriarekin harremana duten entitate, elkarte, ikastetxe eta gainerako gizarte-eragile guztiak".

antolatutako eztabaida-taldeen bidez (12-14, 15-17, 18-23 eta 24-30 urte) eta adituekin egindako elkarrizketen bidez (elkarrean ordezkariek, langileak...).

Parte hartu nahi dutenek Gaztebulgoarekin jar daitezke harremanetan, Algortako Torrene kaleko 3. zenbakian, 94 466 03 53/688 88 09 85 telefono zenbakietara deituz edo gaztebulgoa@getxo.eus helbide elektronikoa. 12 eta 13 urteko pertsonen tutorearen, amaren edo aitaren telefonoaren bidez jarri beharko dute harremanetan, nahiz eta gero adingabeak parte hartu.

Mihaela Jilavu Gazteria zinegotziak adierazi duenez, "azterlan honen bidez gure gazteek bizi duten errealitateari buruzko informazioa eguneratu nahi da, hainbat arlotan oinarrituta: berdintasuna, euskara, inklusioa, kulturartekotasuna, emantzipazioa, parte-hartzea eta aisialdia.

Diagnostikoa egiteko, honako urrats hauek egingo dira: zerbitzu publikoen dokumentazioa eta estatistikak aztertuko dira, baita programak ere, gazteen errealitateari buruzko informazio orokorra lortzeko. Halaber, informazioa bilduko da adin-tarteen arabera

OPORRETARAKO TXARTEL ERABILGARRIAK

TXARTEL MOTA	ADINAK	BALDINTZAK	PREZIOAK	ABANTAILAK
NAZIOARTEKO ATERPEKIDE TXARTELA	Gaztea: 14-29 urte Heldua: 30 baino nagusiago Familiarra: Unitatea + <14 seme-alabak Taldea: <18 begiralea (gutx. 10 pert.)	* NAN edo Pasaporte * Famili Liburua * Diruaren ordainagiria	30 urte baino gehiago: 10€ 30 urte baino gutxiago: 5€ Familiak: 18€ Taldeak: 16€	Nazioarteko Aterpetxe Federazioko edozein nazioarte mailako Aterpetxeetan ostatu hartzeko http://reaj.com
EUROPAR GAZTE TXARTELA	14 eta 29 urte bitartean	* Euskadin erroldatuta egotea * Diruaren ordainagiria	Dohainik eta digitala	Hainbat deskontu eta zerbitzu berezi: - Bidai aseguru - Garraioa - Dendak - Ekintzak - Zozketak - Doako Larrialdi zerbitzua bidaietan eta informazioa 24 orduz www.gazteakukera.euskadi.eus
BIDARIENTZAKO TXARTELA (IYTC)	14 eta 30 urte bitartean	* NAN edo Pasaporte * Txartel tamainako argazki 1 * Diruaren ordainagiria	Txartel digitala (11 euro) eta fisikoa (+ 4 euro) www.isic.es	Hainbat deskontu eta zerbitzu berezi: - Garraioa - Ostata - Museok, antzerkiak, zinema, ... - Mundu osoko leku historikoak - Doako Larrialdi zerbitzua bidaietan eta informazioa 24 orduz
NAZIOARTEKO IKASLE TXARTELA (ISIC)	Edozein ikasle, edozein adina, formazio edo jatorrikoa	* NAN edo Pasaporte * Ikasle izatearen agirirekin bat (normalean, nahikoa izaten da kasuan kasuko ikasturtean ofizialki onartutako zentro batean egindako matrikula aurkeztea) * Txartel tamainako argazki 1 * Diruaren ordainagiria	Txartel digitala (11 euro) eta fisikoa (+ 4 euro) www.isic.es	Hainbat deskontu eta zerbitzu berezi: - Garraioa - Ostata - Museok, antzerkiak, zinema, ... - Mundu osoko leku historikoak - Doako Larrialdi zerbitzua bidaietan eta informazioa 24 orduz
NAZIOARTEKO IRAKASLE TXARTELA (ITIC)	Ikastetxe ofizial batean irakasle gisa kontratatuta dagoen edonor	* NAN edo Pasaporte * Ofizialki onartutako ikastetxe batean irakasle izatea egiaztatzen duen agiria * Txartel tamainako argazki 1 * Diruaren ordainagiria	Txartel digitala (11 euro) eta fisikoa (+ 4 euro) www.isic.es	Hainbat deskontu eta zerbitzu berezi: - Garraioa - Ostata - Museok, antzerkiak, zinema, ... - Mundu osoko leku historikoak - Doako Larrialdi zerbitzua bidaietan eta informazioa 24 orduz

BEKAK SARIAK

* **Global Training 2024ko bekak** Basque Trade & Investment- Nazioartekotzeko Euskal Agentziak, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak eta Eusko Jaurlaritzak deituta, Euskal Autonomia Erkidegoko 30 urteko beharrezko unibertsitate-tituludunentzat, atzerrian prestatzeko eta nazioarteko enpresa batean praktikak egiten esperientzia hartzeko. Eskakera: uztailearen 19ra arte. Informazioa: <https://labur.eus/ZiKkw>

* **Garapenerako lankidetzan profesionalak espezializatzeko bekak**, Lankidetzeta eta Elkartasunerako Euskal Agentziak deituta. Gehienez 28 urte eduki behar dira 2024ko urtarrilaren 1ean eta gutxienez urtebeteko esperientzia arlo horretan. Eskakera: uztailearen 15era arte. Informazioa: <https://labur.eus/LptHE>

* **Mashumano Gazteen Sarien XIX. edizioa**, gazteen Talentu Sozialeki Arduratsua sustatzeko eta babesteko. 14 eta 30 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute, hiru kategoriatan, eta sariak 2.000 eurokoak izango dira kategoria bakoitzeko. Ekimenean aurkezpena: irailaren 13ra arte. Izenematea online bidezko formularioaren bitartez. Informazioa: <https://labur.eus/HHu2j>

Romoko Gaztelekuaren programazioa

Uztaila

Hilak 5, ostirala: JOLASA. UR-JOLASAK
Hilak 7, igandea: SUKALDARITZA. JOGURTA FRUTAREKIN
Hilak 12, ostirala: ESKULANA. BUZTIIN POLIMERIKOA
Hilak 13, larunbata: EKINTZA. PICNIC
Hilak 17, asteazkena: TXAPELKETA. FUTBOLIN
Hilak 19, ostirala: IRTEERA. KOLTSONETAK
Hilak 23, asteartea: SUKALDARITZA. BROTXETAK
Hilak 26, ostirala: IRTEERA. IGERILEKUAK
Hilak 27, larunbata: EKINTZA. IKASTURTE AMAIERA

GureGune gazteleku

Algortako Gaztelekuaren programazioa

Uztaila

Hilak 6, larunbata: SUKALDARITZA. PIZZA
Hilak 10, asteazkena: XAKE TORNEOA
Hilak 12, ostirala: SUMMER FESTIVAL
Hilak 17, asteazkena: JOKOA. UR PUXIKEN GUDA
Hilak 19, ostirala: IRTEERA: KAYAK + PADDLE SURF (PLENTZIAKO ITSASADARREAN)
Hilak 23, asteartea: SUKALDARITZA. MILKSHAKE
Hilak 26, ostirala: IRTEERA: NEW DIVERSION PARK (GORLIZKO HONDARTZAN)

GauEgun gazteleku